

## ZUHAITZEN LERROKADURAK, HIRIKO ARNASBIDEAK

### Itzalaren bila

Gure bizitza zuhaitzen mende dago, eta inoiz ez gara horretaz erabat jabetu. Egungo egoera kontuan hartuta, beharbada esan beharko genuke gure biziraupena zuhaitzen mende dagoela. Funtsezkoa da hiri-sarean zuhaitzak egotea: karbono-dioxidoa harrapatu eta oxigenoa isurtzen dute, airearen kalitatea hobetzen dute partikula kutsatzaileak harrapatuz, espazioa klimatizatzen dute bero-uharteak saihestuz, hesi naturalak eratzen dituzte hots-kutsadura erregulatzeko, espezie askoren habitata dira, biodibertsitatea bultzatzen dute eta herritarrentzat emozionalki osasungarria den ingurune fisikoa sortzen dute.

Hirietan zuhaitzak egoteak ezin konta ahala onura du, baina, aldi berean, kontuan hartu beharko genuke hiri-lerrokadura batean zuhaitzaren bizi-baldintzak zein diren. Oro har, espazio publikoan dagoen zuhaitz batek zoladuraz estalitako lurrezko metro koadro gutxi batzuetan garatu behar du ezinbestez. Etengabeko trafikoak lurzorua trinkotzen du, hori oztupo da ura eta mantenugaiak zirkulatzeko, eta, ondorioz, zuhaitzaren hazkundea motelagoa izaten da. Sustrai-sistemaren garapena oso mugatua da, alde batetik, hiriko lurpeko hodi eta azpiegitura guztiak saihestu behar baititu, eta, bestetik, aurre egin behar baitio asfaltoak eta hormigoiak eragindako tenperatura altuen ondoriozko estres termikoari. Iragazki natural gisa funtzionatzen dutenez, etengabe daude ke eta gasek dituzten partikula kutsatzaileen toxikotasunaren eraginpean. Hiri-ingurunean, nabarmen murrizten da zuhaitzaren bizitza, bere habitat naturalean izango lukeenarekin alderatuta.

Zuhaitzek gaur egun hiri-ingurunean duten kokapena historian zehar izandako prozesu luze baten emaitza da. Izan ere, haiek dira iraganean lehen giza kokalekuak agertzeko bide eman zutenak. Ilgora Emankorrean nekazaritza garatzeak aukera eman zuen zuhaitzak landatu eta ugaltzeko, eta, horren ondorioz, lehen zeuden urtaroko herrixken orde, herrixka iraunkorrak azaldu ziren. Egiptoarrek zuhaitzak birlanatu, eta distantzia luzeetan eramane zituzten itsasontziz. Erromatarrek, batzuetan, galtzadetan zehar landatzen zituzten, bideen ibilbidea urrutitik ikusi ahal izateko. Handik mende batzuk geroago, Aro Modernoan, zuhaitzen lerrokadurak agertu ziren espazio publikoan, gaur egun ezagutzen ditugun moduan. Hori Europako hainbat guneko geografikotan sortu zen, batzuetan eliteen lorategien eta berdeguneen hedapen edo bilakaera gisa. Zuhaitzak funtsezko tresnak izan ziren boterea irudikatzeko, eta, normalean, botere ekonomikoaren distira islatzeko agertzen ziren.

Barroko garaiko Holanda oparoak hiri-eredu bat sortu zuen, kanpotarren esanetan "baso bat hirian edo hiri bat basoan" bezalako zerbait zena. Irudi hori erreferente bihurtu zen gero Europako gainerako hirientzat. Kasu horretan, itsasoari lurra kentzeko zeukaten baliabide teknikoak hirigintzaren kontzeptu jakin bat sortu zuen. Prozesu horretan, zuhaitzek funtsezko zeregina izan zuten. Haize-errotek ura drainatzen zuten, eta, ubideak egonkortzeko, ezki, zumar eta haltzak landatzen zituzten, lagungarri baitziren lurra finkatzeko. Amsterdam eta antzeko hirietan, ubideen sareak ziren komunikazio- eta garraio-bide nagusiak, eta, normalean, zuhaitzak landatzen zituzten ubideen bi aldeetan.

Parisen, Maria Medici erreginak zalgurdiaren paseatzeko ohitura italiarra sartu zuen. Alferkeriazko praktika horretarako diseinatu zen "Cours de la Reine" izeneko, kilometro bateko luzera zuten lau zuhaitz-lerrokadura, haietatik ibiltzeko. Hasiara batean eliteentzat zena, azkenean jendartera zabaldu zen. Espazio hori jendartean azaltzeko eta harremanak izateko toki bihurtu zen, maitasunerako leku. Hori da zuhaitzen eta ibilgailuen zirkulazioaren arteko loturaren lehen adibidea. Denbora-pasa horren ondorio gisa uler daitezke errepideen bi alboetan gaur egun egoten diren zuhaitz-lerrokadurak.

Industria-iraultzan ere zuhaitzak ezinbestekoak izan ziren hiri bizigarriak lortzeko. Londresen, "itzala emateko platanondo ezagunak" erresistentzia-eredu bihurtu ziren, egokiak baino egokiagoak

baitziren airea garbitzeko, fabriketan eta etxeetan ikatza erretzearen ondorioz sortutako smogarekin itota zegoen hirian.

Ondoren, errekontza-motorra zuten ibilgailuekin masifikatutako errepideek arazoa areagotu zuten, isuritako gas eta kearekin. Paradoxikoki, bide bazterretan zuhaitzak landatzeko ohitura zaharra konponbide bat zen arazo berri horretarako.

Interesgarria izan liteke gogora ekartzea historiaren aurreko une batean "itzalpeko platanoe" beste funtzio bat izan zutela, filosofo greziarren eztabaida intelektualen eta ideia-trukeen babesleku eta lekuko izan baitziren. Platonen Akademiako eta Aristotelesen Lizeoko zuhaitzen itzala ekarri nahi nuke gogora, gogoeta-gune horren bila, gure hiriei dagozkien gai praktikoak, eskala globalean erronkak dituen errealitatea konpontzeko.

### El ladrón de miel (Ezti-lapurra)

"El ladrón de miel" (2023) "Arbolado para calles, imperios y paraísos" (Kale, inperio eta paradisueterako zuhaitzak) proiektuaren parte da: prototipo eta zuhaitz-lerrokaduren eredu batzuk espazio publikorako, non zuhaitzak hizketan hasten diren hiri-testuinguruarekin kontakizunak eratzeko.

Zuhaitzak espazio publikoan egotea interes politiko, erlijioso, sozial edo praktikoei lotuta egon da historian barrena, eta funtsezko bihurtu dira gaur egungo hiri-ekosisteman.

"El ladrón de miel" lanak aztertzen du zuhaitzen eta zibilizazioen garapenaren artean dagoen ezinbesteko lotura. Ibilbide bat proposatzen du, lehenbiziko zibilizazioen kokalekua sortu zuten espezieetatik hiri garaikideetan aurkitzen ditugun zuhaitz-plangintzetako eredueteraino.

"El ladrón de miel" lanak lorategi klasiko baten programa kontzeptuala eramaten du hiri-lerrokadura batera. Berpizkunde eta Barroko garaietako lorategiak egituratzen zituzten kontakizun mitologikoak, eraikuntza hauen izaera ludikoa eta maitasunerako espazio hauen imajinario erromantikoa dira zuhaitz-ilara honen ardatz tematikoa.

"El ladrón de miel" izenburuak Teokrito poeta klasikoaren bertso bukolikoei egiten die erreferentzia, non erleek amodioaren jainkoa zen Erosi eraso egin zioten, abaraska batetik ezti lapurtzen ari zela. Negarrez eta minduta kezaka joan zen ama zuen Afroditarengana. Nola liteke hain izaki ñimiñoek hainbeste min ematea? Afrodita aurpegiratu zion, hain zuzen, horixe egiten zuela berak maitasun-jolasetan.

Kontakizun hori sarritan irudikatu dute artearen historian: Dureroren marrazkiak eta Lucas Cranachek lan horri buruz egindako bertsiu ugariak dira horren erakusle.

Lizarrek (*fraxinus ornus*), ezkiek (*tilia cordata*), altzifreek (*cupressus sempervirens*), pikondoek (*ficus carica*), laranjondoek (*citrus x sinensis*) eta sagarrondoek (*malus domestica*) osatzen dute lerrokadura. Zuhaitz meliferoak dira gehienak, erleekin sinbiosian ezti sortzen dutenak. Lerrokadura baso mitologiko batetik abiatzen da, ustez Simonides Zeoskoarena den kontakizun baten arabera; Erosek haurtzaroan bi zuhaitz erabili zituen bere maitasun-armak eraikitzeko: lizarren egur malgua arkurako eta altzifrearen zura geziatarako. Hortik atera ziren kontakizun mitologikoak eratu zituzten bektore asko, maitasuna, pasioa, sedukzioa, traizioa, mendekua, tragedia... protagonistatzat hartuta. Kontakizun horietako asko gertaera naturalen azalpena ziren, eta pertsonaia asko laino, euri, animalia, lore eta zuhaitz bihurtzen ziren azkenean, Ovidiok *Metamorfosiak* lanean jasotzen duen paisaia mitologikoa osatuz.

Interesgarria iruditzen zait imajinario mitologikoaren eta ekosistema naturalen arteko analogia proposatzea. Naturan izaten diren sinbiosi, mutualismo, harraparitza, parasitismo... eta bestelako erlazioak sedukzio-joko eta -estrategiak dira aldi berean; eta polinizazioa, hazien sakabanaketa, ernamuintzea eragiten dute. Estrategia horien adibide dugu *Ophrys apifera* erle-lorearen metamorfosia, orkideak bere itxura aldatu baitu erle arra erakartzeko eta polinizazioa eragiteko.

“El ladrón de miel” lanean zuhaitz-lerroak erakarpin-estrategia horiek guztiak biltzen ditu. Era berean, zuhaitzak loratzean isurtzen duen lurrinak hirietako ekosistemari interpelatzen dio, sedukzio-tresna gisa funtzionatzen du metamorfosia eragin nahian, espazio publikoaren bilakaera. Zuhaitzak funtsezkoak dira metropoli-eremuetan, CO2 finkatzeko duten garrantziagatik eta klimatizazioagatik. Espezie askoren habitata dira, eta lagungarri dira biodibertsitateerako. Hala ere, hiria, kaleak aurkako ingurunea dira zuhaitzentzat, eta etengabeko estresa eragiten die bizi diren bitartean.

Obra honek galderak egiten ditu berdeguneak kudeatzeko oraindik ditugun moduei buruz, beti ikuspegi antropozentriko eta erabilgarri batetik abiatuta. Zalantzan jartzen du gure jarrera harraparia eta parasitaria, hiri-ekosistemako izaki guztien artean sinbiosia proiektatu ahal izateko.

“El ladrón de miel” lanak plano mitologikoa egunerokotasunaren planoaren gainean jarri nahi du. Hiri-ekosistema osatzen dugun izaki guztiok parte hartzen hasten gara zuhaitzek sortzen dituzten kontakizun mitologikoetan. Txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, intsektuak eta haien antzeko izaki mitologikoak eragin-trukean hasten dira zentauroekin, herensugeekin, ninfekin... Alde ludiko eta performatiboak berezko bizitza hartzen du, zuhaitzek sortzen dituzten "gidoi mitologikoetatik" abiatuta. Hades, Demeter, Fitalo, Hesperideen Lorategia, Ladon herensugea, Zeus, Meliadeak, Kronos, Filira eta Kiron dira, besteak beste, “El ladrón de miel” lanean ibiltzean aurkituko ditugun jainkoak.

“El ladrón de miel” Gasteizko Artium Museoan instalatuta dago. Zuhaitzek museoaren arkitektura zeharkatzen dute, ikuslearen konplizitate performatiboa lortu nahi duen joko bat eginez, eta hainbat zuhaitz-espezieren ibilbide historikoa adierazten da, zibilizazioekin batera joan baitira.

Erreferentziak:

City Trees. A Historical Geography from the Renaissance through the Nineteenth Century.

Henry W. Lawrence.

University of Virginia Press. 2006



“El ladrón de miel” instalazioa (2023) Artium Museoan. Artiumen kanpoko ikuspegia. Irudia: Artium



“El ladrón de miel” instalazioa (2023) Artium Museoan. Higuera.



“El ladrón de miel” instalazioa (2023) Artium Museoan. Artiumen barruko ikuspegia.

José Ramón Ais



**José Ramón Ais** artista plastikoa da. Haren lanak sakon aztertzen ditu kontakizunak, ideologiak, desirak eta utopiak naturan proiektatzeko dauden lotura emozionalak eta moduak; eta gogoeta eta esperimentazioa egiten ditu eraikuntza eta irudikapen gisa ulertutako paisaiarekin lotura duten kontzeptuez. Landareen landaketa, behaketa eta dokumentazioa izaten da haren prozesuen abiaburua, lorategia, estudioa eta platoa hibridatzen diren lurralde batean; eta haren praktikak batera uztartzen ditu fotografia eta irudiaren postprodukzioko teknikak, alor-lana eta ikerketa historikoa.